

arrantza kosmiko

UGAITZ AGIRRE

BOOKTEGI

E
l
k
a
r
r
I
r
a
k
u
r
r
i
z



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

UGAITZ AGIRRE

arrautza kosmikoa

Latinez, *cosmicam ovum*

E
l
k
a
r
r
I r a k u r r i z

Poetaren izen bera zeukan aitonak: Virgilio. Nik apenas gorde nahiko nuke haren oroitzapenik, baina.

Tipo txikia zen, hori bai, eta zimur sakonen azpian gordetako begiek ia-ia ez zuten ezer ikusten. Masailak eroriak zauzkan, bai eta lepoko azala ere, gelatina nola mugitzen zitzaiona. Ziurrenik gorputzeko azal guztia dardarka jarritz gero, flan batek bezala dantzatuko zukeen — irudia ezabatzeko prozesua abian: hiru, bi, bat—; guztion zorionerako, haragiaren bekatuan sinesten dutenen pare, goitik beheraino estaltzen zuen mahaspasa-gorputza. Hala, aurpegiko ezaugarriak nabarmenagoak zitzaizkion. Batik bat, belarri puntadunak eta umore txarra. Indarrak ahitutako iratxo setatia zen, beti bekaitz, txoriburuak eta txoro-haizeak bizkorki salatzen zituen mingain pozoitsu. Berriak entzuten bazituen, marmarrerako aitzakiak loratzen ziren, eta berriemaileak bere idealen aurkako zerbait bazioen, istantean hartzen zuen telefonoa erredakziora deitzeko. Familiaren katekesia huraxe izan zen, nahiz eta kredoan ez sinetsi: obediencia pasiboa.

Ez nadin itzuli-mingulietan ari, ordea, eta esan dezadan egi borobila: aitona Virgilio goitik beherako putakumea zen. Istorio batetako maltzurra izan zitekeen, eta aktore lanetarako kontratatu izan balute, gidoia ikasi beharrik ez zukeen izango. Hitzik ezean, mespretxu-keinu gupidagabeak nahi beste zeuzkan. Mundu guztiak gorrotatzeko modukoa zatekeen.

Baina hil zen, bai, ezin aktore-karrerarik egin. Halere, ia mende bete iraun zuen haren zekenkeriak; baina azkenerako, kaput. Belar txarrekin amaitzea zaila izanik ere, akaba daitekeela horiekin ere.

Txanpan-botilarik ez genuen zabaldu, zer esango horregatik, herritarrek bazekiten arren, guretzat ere, jasangaitza zela. Haiek bai, haiek diktadore bat hil bailitzan ospatu zuten gertaera. Musika-txaranga bat kontratatzeraz ailegatu ziren! Gure familia, kontrara, lasai arnas hartzearekin konformatu zen.

Lurperatu genuen, eta ekitaldira etorritako gehiengoak lurpean ondo segurtatuta zegoela ziurtatzera hurbildu zen, ez ote zen, kasualitatearen kasualitatez, agurearen trikimailu makiabeliko bat gainerako herritarrez mendekatzeko aitzakia edukitzearen. Beharrik izango balu! Dena konrekto. Ondorenean, beste edari-botila bana zabaldu zuten, eta tabernaria zer

gehiago atera ez zeukala geratu zen. Ura? Horrekin ezetz, bezeroek, zorte txarra zekarrela-eta.

—Imajinatu agurea berpizten dela.

Biharamunean deitu gintuen notarioak testamentuaren irakurraldira. Paperean bazekarren ere, ez zuen bada bideo-formatuan grabatu senide guztiok ikus genezan!

Zu ez zaitut gogaituko aitona Virgilioren bakarrizketarekin. Niri zegokidana esatearekin, aski eta sobera. Horrela zuzendu zitzaidan pantailatik bertatik nire begirada bilatu eta kikildu nahian:

—Nire biloba tontolapiko, odolgabe eta traketsari —izenondo iraingarriak beharrezkoak ziren nori buruz ari zen jakiteko— ahate-arrautza hau emango diot.

Ahate-arrautza bat?, pentsatu nuen. Baina zer herentzia-mota da hau? Broma bat? Ea, non daude kamerak?

—Ez hadi txepela izan, baboa! Arrautza hau froga bat duk, aproposa hi bezalako baldarrontzi batentzat. Oinordekotzan nire ondasunak utziko dizkiat, baldin eta gai bahaiz hogeita hamar egunez arrautza hau oso-osorik mantentzeko.

Bizkorki okertu zuten muturra gainerakoek. Sosak seme-alaben artean banatu izanagatik, konforme ez. Kexatzea libre da, bai, baina hura dirutza bildu zuena aitona ia mende betean... Horrenbeste zero jarraian ez nituen bizitza osoan ikusi. Zer den zuhurra, besamotza izatea! Bada, hura guztia sei zatitan; eta palazioa, nire eskura aipatu baldintza tarteko.

—Burutik pasa bazaik arrautza trukatzea, jai daukak. Gau eta egun, detektibe bat izango duk itzal. Tontoenak ere antzemango lizkiake hire trikimailuak, baina behingoagatik, mutiko azkartzat izango haut.

Palazioarena jakitetik hasitako marmarrak laster ozendu ziren, eta nire izeba-osabak ez ezik, gurasoak ere matxinadaren parte egin ziren. Hura erokeria hutsa zela zioten, ondorengo zuzenak haiek izaki, hanka-sartze garbia behar zuela.

—Isilduko zarete, jainkoarren! Hildakoak ere ez dituzue errespetatzen. Zer erakutsi dizuedan ondo dakit, baita zuek ikasitakoa ere: batere ez!

Suminduraz mututu ziren aitona Virgilioren sei seme-alabak: Tomas, zaharrena; Agustin, gero; Maite eta Sebastian, bizkiak; Mertxe; eta Tiburtzio gazteena, nire aita. Azkena izanda, akaso Erromarekin lotzeko zera bat izan zitekeelakoan, izen hura jarri zion. Gainontzekoekin esperantza azkarki galdu zuen, haren urratsak jarraituko zituen modukorik ez zion irizten bakar bati ere. Aitzakiak bilatzen abila zen aitona: bat meharregia zela, bestea errena, hura ameslarieregia, hori ez nahi bezain azkarra, hau zeharo buruarina. Zeren aitonak uste zuen kontsul erromatarra zela, eta bere etsenplua hitzez hitz jarraitu behar zuten haren odolekoek. Horregatik, azken aukera bat eman zion obedientziari, zuzentasunari, ordenari, handitasunari. Kukuak oker jo, ordea, nire aita ez zen-eta SPQR delakoan sartzeko modukoa izan, ez izango. Bide guztiek ez daramate Erromara, nahiz eta garai batean hara eraman.

Itzul nadin Virgilioren hitzetara:

—Nire sei seme-alabek, arestian berri emandako diru-kopuruaz gain, jauregia eskuratu ahal izango dute. Nola galdetuko duzue babo zorritsu alaenok. Bada, jolas bat.

Bai, bai, oso ondo entzun genuen, jolastera behartu nahi gintuen. Bakean dagoenari bakean uztea agintzen du atsotitzak, baina Virgiliok besteen asaldaduran aurkitzen zuen berea; hortaz, beste lege zaharra hankaz gora eta buruz behera jarri behar: hila bakean egon dadin, egin gerra biziari!

Kontatu nahi dizuedan istorioa hastear dago, alegia, ahate-arrautzaren eta nire arteko harremanarena, baina aitonaren izaera azaltzea behar-beharrezkoa zen nire gurutze-bidea uler dezazun. Putakume bat zela aipatu dut, ezta? Azal diezazudan arrautzaren jolasa:

Aitonaren palazioa eskuratu nahi banuen, hogeita hamar egunez osorik mantendu behar nuen arrautza madarikatua. Horraino, oso ondo. Patuak bosgarren egunean arrautza zartatzea erabakitzen bazuen, ordea, osaba Tomasentzat izango zen palazioa. Aldiz, labainkada bat medio arrautza airean irten eta lurrean tortilla amaitzen bazuen bederatzigarren egunean, osaba Agustin izango zen jaun eta jabe. Hamabigarrenean desdixaren kapritxo auto baten gupilean amaitzen bazuen arrautzak, Maiteri emango zion

palazioa ondorengotzan; eta Sebastian anaia bizkiari hamabosgarrenean zoritxarra gertatzen bazen. Hogeita seigarrenean oskolak krak eginez gero, Mertxek jasoko zuen opari. Eta azkenik hogeita bederatzigarren egunean, aitonak jarritako erronka betetzear izango nintzela, arrakala batek goitik behera zeharkatu eta lur gainean gorringo eta zuringoa askatuko balitu, nire aitarentzat.

Istripuaren detaileak adibide hutsak ziren, ilustrazio idealak kriminalaren gogoetan txertatzeko. Nahieran apurtzea nahikoa zen. Eta bilera-gela hogeigarreneko burges hantuste hartara bueltan, benetan diotsut, ikusi izan bazenitu sei bihozgabe horien begiak dirdirka, irribarre maltzur, sadiko, zoro batez lagunduta, eta atzetik haien bikoteenak sarraskijale tripazorritsuak bailitzan...

—Lasai —zioen aitonak pantailatik—, hilabetea azkar pasatzen zaio hamaika buruhauste dituenari. Itzuleran jakingo dugu nor eseriko den besaulki honetan, eta bitartean zoazte infernura deabru hordi tripa handiok!

Arrapaladan irten nintzen handik, ez adio, ez ezer. Segurtasun-enpresa bati hots egin nion, jarri ziezazkidatela ate blindatuak, sarraila hirukoitzak eta beste hainbeste kisketa, titaniozko kristalak, eskanerrak eta, behar izanez gero, Suitzako guardia. Azken horretarako ez neukan sakelan nahikoa, eta aparte, lan-hitzarmenak ez zien Vatikanoko Hiritik ateratzen uzten. Gainerakoarekin konformatu beharko, eta nire etxean giltzapetu nintzen: estatu-kolpea nire buruari: gorroteak eta parlamentua mantendu nituen exekutiboak zertan jaramonik egin ez bazuen ere: aholkularien tirania izenarekin bataiatu zuen erregimena prentsa disidenteena.

Panorama ikusita, lehen biktimak berehalakoan azaleratu ziren: bikotekideak maletak egin, eta erbestera joan zen. Abentura zoroenak zin egin banizkion ere, guztiak ditu mugak, azaldu zidan atea itxi aurretik. Gu ere hobe hilabeteko jolasean bagabiltza: zu hor eta ni hemen.

Unean min emanagatik, halako zurrunbiloan abandonatu ninduen-eta patuaren zortera, arrazoi zuen, zeren azkar joan zitzaizkidan begiak arrautzara. Ate-kolpeak dardarka jarri izan balu?

Era berean erreazionatu nuen hiru kolpeko ahapaldietan jo zutenean behin, bitan, hirutan atea.

—Nor da? —galdetu nion ezezagunari txulotik begiratzearekin batera.

—Detektibea —lehorki.

Jada ahaztuta nintzen detektibearen izateaz. Gau eta egun nire itzala izango zela zioen aitonak, eta akaso ohe bat atondu beharko niokeen. Gonbidatuen gela libre zegoen, bisitaririk ere ez nuen espero, eta gera zitekeen lasai-lasai. Gainera, pertsona lagungarria izan zitekeen, segurtasun-enpresakoek eskain ezin zezaketen Suitzako guardia.

Atea zabaldu nion, eta begien aurrean detektibe-klixex bat nuen. Bere whisky eta tabako kiratsa, bere berrogeita piko urteak eta familia-arazo emozionalak, bere kapela eta bere gabardina, bere azaleko zabarkeria eta barne sentibera.

Bortizki bultza ninduen, eta arin, arrautzaren bila abiatu zen. Istant batean aurkitu ere, eta nire aurrean apurtu zuen eskuan bertan birrinduz.

Bihotz-minak horrelako zerbait izan behar du.

—Horregatik ez diozu inori atea zabaldu behar! —hartu zidan kargu—. Lasai, originala hemen dago —beste eskua zabaldu zuen.

Tipoa zein bandotan zegoen, ideiarik ere ez. Ez nekien lagundu nahi ote zidan, hanka sartzeko presio gehiago egitera etorri zen, aurpegira barre egiteko asmoa ote zuen. Zera esan zidan pilula analgesiko bat nola:

—Badakizu hinduismoan arrautza bat dela denaren hasiera?

Hori bazkalosteko dokumentalean edo interneteko bideo txoro batean entzunda nekien? Nola zen, arrautza kosmikoa? Gogoeta hutsal horretan nintzela, bere gauzak antolatu zituen detektibeak.

Hemen alkandorak ondo tolestuta, hor zapata pareak, hautsontzia eta botila harago. Zertan ari zen galdetu nion, eta logikoki, hogeita hamar eguneko zerbitzurako prestatzen ari zela erantzun zidan.

—Baina zergatik hemen, guztiaren erdian?

—Bada hemen dagoelako zure itzala.

—Eta eguerdia denean zer egingo duzu? Lurpean sartu?

—Kezkatu zaitez arrautzagatik, ez nigatik, palazioaren jabe izan nahi baduzu behintzat.

Ez nion hitzik luzatu gehiago. Ondorioztatu nuen zoratuta zegoela, baita segurtasun-
enpresako langileek ere. Beno, haiek zoroetxe bateko segurtasun-sistema muntatzen ari
zirela pentsatu zuten hura guztia arrautza bat zaintzeko zela esandakoan. Baina zoroenak, eta
hau ez nuen espero, nire familiakoak ziren. Inondik inora ez nuen uste izeba-osaba guztiak,
eta ez ditzadan gurasoak ahatz, mafia-familiak zirela. Kriminal antolatuak.

Konstantinoplako harresiak eraikitzea ideia ona izan zen hasieran. Tomasek era guztietako
banatzaileak eta banatzaileak bidali zizkidan bosgarren egunean, guzti-guztiak atea pasatzeko
asmo argitan. Aitzakia tontoak ematen zituzten, pixagura zela, sinatu behar zela, Eusko
Jaurlaritzatik bidalitako inkesta bat zela, etxea ikuskatu behar zutela kriminal bat han gorde
zela-eta... Inork ez zuen zeharkatzea lortu; hitzak hitz, zekartena ate aurrean uzteko esaten
nien. Hala ere, bakarren bat leihoa gainditzeko ahaleginean jardun zen. Alferrik, guztia
esatearren. Magia-eskola batetik onarpen-gutunarekin zetorrela ez zen sinesgarria, nahiz eta,
bai originala.

Bitartean, esne-mamitan neukan objektu obaloa. Biguntasunak inguratzen zuen
hauskortasuna. Elkarren aurkako, eta zeinen ondo uztartzen ziren elkarren artean. Lerdo
baten moduan begira nintzaiola jo zuen mugikorrak. Jai-egunak bukatu zitzaizkidala-eta, ea
nire zeregin eta betebeharrak itzultzeko asmorik ote nuen galdezka zebilen aparatuen
bestaldetik giza baliabideetakoak. Portzierto, oso jatorra, zeren eta esan baitzidan sei familia
mafiosoren setiopean nintzenaren harira:

—Baja eman diezazuekete halako delirioengatik.

Ai, zer zortea nirea delirioak balira, sikiera! Eskizofrenia diagnostikatzekotan egon zen
psikiatra, baina aire freskoa errezetatu zidan nire buruari jarritako itxialdiaz mintzatu
ondoren. Agintari tiranoak bozkara deitu zituen gorputz-zelulak, eta gehiengo sinpleak irabazi
zuen: kalera ateratzen nintzen aldiro ahate-arrautza nire beste apendiz bat zen.

Inoiz ez nuen horrenbeste estropezu egin jendearekin. Agustin, Maite eta Sebastianen ordainpekoak izan behar: bipedoen mafia, txirrindularien mafia eta ibilgailu motordunen mafia. Egiari zor, Agustinengandik gehiago espero nuen. Anaia-arreba bizkiek antzeko estrategiak gauzatzea, ados, baina familiako bigarrenarengandik, ez dakit, osaba Tomas ere ez zen askorik saiatu, baina... Gainera zer espero zuen, pertsona batekin tupust egin, ahal izanez gero nire adin bertsukoa, gainean generamatzan gauzak lurrera erori, baldarki jasotzen ahalegindu eta eskuen ukitu hutsak bat-bateko maitasun-istorioa hastea, begiraden gorputzen keinuen biluztasunak nire bihotza urtzea, sexu espidatura igarotzea, eta amaieran Mata-Hari zela ohartzea bihotza (eta arrautza) begien aurrean apurtuta? Era sosegatuan pentsatuta, ondo zegoen pentsatuta. Buruari gogor eragin zion.

Sebastianek, ordea, ez zion eragin; hari joan egin zitzaion. Ez zidan, bada, boeing 707 bat zuzen-zuzenean egongelaren aurka bidali! Eskerrak gose tonto hori neukan eta sukaldean nintzen handik eta hemendik zizka-mizkan. Bai, etxean ere arrautza gainean neraman, zerbait esateko?

Izeba Maitek ez zuen oso erabaki ona hartu txirrindulariekin aliatuta. Gizartea aldekoen eta kontrakoen artean banatuta zegoen, eta edonork daki polarizazio-garaietan bandoa aukeratzen bada, larrututa buka dezakeela batek. Oinezkoek ez zuten batere begi onez ikusi txirrindulariak espaloia ginetik nahieran ibiltzea, eta zin dagit, erraiak ikusi nituen bataila hartan. Ahaztu "Historiako 10 gudarik traumatikoenak" izeneko bideoetan aipatutakoak. Mundua beste bat zen txirrindularien eta oinezkoen artekoaren ondoren.

Gertaerak gertaera, ni arrautza zaintzeko tesia ontzen nenbilan. Patentatzeko moduko hainbat metodo neuzkan ordurako. Kristalak biltzeko burbuila-plastikoa? Marabila. Urez betetako poltsan arrautza sartzea arrain tropikalen pare? Excelsior. Soilik gabezia bat zuen: izeba Mertxek ninjak ordaintzea zure ilusioak zapuzteko. Begiak bakarrik bistan, metalezko izar-xafla horietakoak jaurti zizkidan tipo xelebreak belarrondoko ederra merezi bai! Bat kopetan, ezker oinean, eskuin izterrean, sabelean eta bana bi ipurmasailetan. Azken horiek nahita egin zituen. Ez dut frogarik, baina ezta dudarik ere.

Erizainak horrelako jolasak albo batera uzteko gomendatu zidan. Nik, ordea, arerio latzenari aurre egin behar niola erantzun:

—Nori? —galdegin zidan liluraz zein beldurrez.

—Nire aita zitalari.

Une batez, aita besaulki ilun batean irudikatu nuen, traje zuriz dotore eta lirain, esku batean likore garestia eta bestean sexualizatutako nire amaren gerria. Atzean hiruzpalau gizon armatuta Miamiako narkotrafikatzaileak bailiran.

Segituan lausotu ziren fantasia guztiak, zeren nire gurasoek ez zeukaten Martin Scorsese zinezuzendariaren pertsonaiak izateko glamourrik. Agian ere haien laurdena balute, baina ez, errutinaren seme-alaba ziren, burokratikoegiak nire gusturako.

Horregatik espero izan nuen hogeita bederatzigarren egun hura umeak haren urtebetetzea bezala. Hankaz gora nahi nituen nire usteak. Lehergailuaren botoia dardarizo gabe sakatuko zuten, burua hotz, eta atentatu arima gabeko hura pairatuko nuen, leherketaren ondorioz lurrean zaurituta eta babes gabe amaiturik, eta gurasoak hurbilduko ziren ni lurrean konortea galtzekotan nintzenean, azkenik, haien irudia handiagotuko zuen ikuspegi kontrapikatutik arrautza nola zekenki zapalduko zuten ikusi beharko nuela; irribarre hutsarekin irainduz, umiliatuz, jolasari amaiera jarri, inoiz ez bainintzen haiei aurre egiteko gai, baina estimutan izango zuten nire alferrikako ausardia.

Zilegi da norberak bere pelikula egitea. Nahi nuen klimax itogarria, horrenbeste joan-etorri hutsal eta geroko errebelazioa: hasieratik genekien gai izango zinela, zuk jakitea falta zen, ordea: hauskorrak izan gaitzkeela, baina sinetsita eta mimoz zainduta, ekinaren ekinez, bagoazela. Eta azkenik euri zitala goian behean, euria hasten delako, eta gogotik, horrelako eszena klimatikoan; eta azken erronkari, azken egun batez arrautza zaintzeari azalberrituta helduko niokeen. Orduantxe, bat-batean, gogoratuko nituzkeen detektibearen hitz haiek, hasieran hain lekuz kanpokoak ziruditenak: Badakizu hinduismoan arrautza bat dela denaren hasiera? Aitona Virgilio eskarmentu bat emateko hil zen, familia guztia horretara bildu zen. Oinordekotza-kontuak apaingailuak besterik ez ziren, kemen ezkutuak hauspotuko zituen energia. Imajinatzen duzu horrelakorik? Konformatu imajinatzearekin, ez zen-eta egon horrelako ezer.

Inoizko egunik lasaiena izan zen. Hain lasaia, arrautza hondartzan ahaztu nuen. Eguraldia aprobetxatu beharra zegoen, badakizu, kolore pixka bat hartzeko, b12 bitamina eta enparauak. Eguzkitako betaurrekoak jarri, eta haragia parrilan nola etzan ginen arrautza eta biok. Kiskalita altxatu nintzen, eta madarikazio artean, zeharo ahaztu nuen arrautza. Lapsus bat, edonori gerta dakiokeen zerbait, ez zen ezer gehiago izan. Ilunabarrarekin itzuli nintzen hondartzara, eta arrautzak han jarraitzen zuen. Halere, hura hartu eta atzera egin beharrean, itsasoa irensten ari zen eguzki goriak hartu ninduen, eta hantxe kieto, sorginduta, izan. Ilunabarra zeren metafora da? Agian hogeita hamargarrenarena.

Bukatu da funtzioa! Bukatu da zirkua! Behin argi-fokuak itzalita, zeru-zolan itsatsitako ipurtargiek soilik argituko digute bizitzaren bide malkarra. Laguntzarik apenas gau ilunean, eta zango trababa bat aski, maitasun-hitzordu bat baldarkeriarekin, eta arrautzak egingo du krak.

Baliteke gogoeta sakon eta ezkorrek, hasieran bezala, etxean giltzapetzea.

Oheak irentsi ninduen, eta bazterretik, horizontalki, zelatatzen nuen ahate-arrautza. Jauregirako giltza izango zen hogeita lau ordu baino gutxiagora, eta elkarrekin bizitako kronologia buruan bueltaka, eme-emeki, laztan bat.

Barne-mugimendua. Posible ote?, pentsatu nuen.

Kua-kua.

Ez da posible!

Gehiago mugitzen zen oskolaren barrua. Kua-kua. Ni salto batean jaiki nintzen hura guztia gelditzeko asmoz, baina botere psikikoak falta zitzaizkidan. Kua-kua aditzen nuen, kua-kua suminezkoa, eta nire bihotz-taupadetan oihartzun, are gehiago urduritzen ninduen. Pitzaduraren lehen zantzua nabaritzean, garrasika hasi nintzen:

—Gelditu! Oraindik salba daiteke!

Nire itzaletik burua duda-mudan mugitzen zuen detektibeak.

—Aditu bati kontsultatu beharko nioke.

Barealdia bat-batean. Nire botere psikikoetan sinetsi nuen istant batez. Telekinesia egiteko gau nintzen, aizu! Baina lehenengoan bat ez da gai behar bezala kontrolatzeko, eta indar hirukoitzarekin pitzatu zuen oskola barruko ahatetxoak. Mokoa azaldu zen. Nik eskuak burura eramane nituen, eta detektibeak:

—Horrek ja ez du atzera bueltarik.

Nire madarikazioak, haserre-oldarraldiak, garrasiak antipodetan ere aditu zituzten. Ziur aitona Virgiliok ere barre egin zuela zegoen tokian zegoela.

Atzean entzuten nuen kua-kua hotsa. Amorratzen ninduen. Itzuli nintzen ea ahate malapartatuari ez ote zitzaion aurpegia aldatuko eragindako zoritxarra kausa.

Kua-kua. Oskol zatien artean plastikozko ate hori bat zegoen.

Virgiliok honela idatzi omen zuen bere Georgikak liburuan: “Felix qui potuit rerum cognoscere causa” edo hizkuntza are zaharragoan, “Felix-felix bihar berriz egongo gara txanpan apur batekin”.

Ate horiak patu latza izan zuen, edo agian, zalantzazkoa eta ezeguna. Kosmos ezezagunera ezin, eta itsasora bota nuen. Mareak zein uhinek auskalo nongo portutara eramango zuten. Nirea ere gisakoa bihurtu zen bat-batean. Ez zuen, bada, aitona aitortu jauregiko giltzak plastikozko ate horiaren barruan zeudela!